

Guztiak batera, igerian

Lasarteko 32. Saria jokatu dute Maialen Chourraut kiroldegian. Hasi aurretik, Nahia Zudaire omendu du Buruntzaldea IKTk / 11

TXINTXARRI

Bost egun, hamaika jarduera

Sanpedroetako egitaraua aurkeztu dute udalak eta eragileek; Txema Valles Viguera kazetari ohia omenduko dute / 2

Motorzaleen biltoki bilakatuko da Lasarte-Oria hilaren 16tik 18ra: scooter-en rallya egingo dute / 3

Herriko hiru ostalarik parte hartu dute Jakitea elkarteak Basque Culinary-n emandako afarian / 4

Buruntzaldeko sei udalek material berriua emango die haur jaioberrien familiei datorren kurtsuan / 8-9

Euskal Pentatloia irabazi dute Beñat Telleriak eta Julen Gabirondok, binaka, Tolosan / 10

Garazi Gomez gimnastak lehiatzeari utziko dio denboraldi amaieran, 24 urteko jardunaren ostean / 13

Urtero bezala, egitarau erakargarria prestatzen ari da Ttakun Kultur Elkarteak sanpedroetarako / 16

zitek
zientzieskola

30. URTEURRENA 1993-2023
Beti zuei laguntzeko prest!

Goikale Kalea 12, behea.
Lasarte-Oria. 943-36 31 06
info@zitek-akademia.com
www.zitek-akademia.com

Laguntza taldeak
Ikasketa teknikak

2023-2024 IKASTURTEA
(irailaren 4tik aurrera)

Gorde plaza eta aukeratu eskolen ordutegia

· LH - DBH -
BATXILLERGOA - ZIKLOAK
· Zientziak | letrak

· HIZKUNTZAK: ingelera eta Frantsesa

2023 UDAKO IKASTAROAK
(uztailaren 3tik aurrera)



Udaleko eta eragileetako ordezkariak aurkeztu dute San Pedro Jaietako egitaraua, Okendo plazan. TXINTXARRI

Dena prest dute jaiez gozatzeko

Hilaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditugu aurtengo San Pedro Jaiak. Lasarte-Oriako Udalak, zenbait eragilerekin elkarlanean, egitarau erakargarria prestatu du adin guztietako bizilagunek herriko festez disfruta dezaten. Aurrekontua 221.586,25 eurokoa izan da

Txintxarri

Haurrentzako uretako festatik LOZET elkarteak Kale Nagusian barrena aterako duen azken zezensuzkora arte, makina bat jardueraz gozatzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek, hilaren 28an hasiko diren San Pedro Jaietan. Okendo plazan elkartu dira udaleko eta programan parte hartu duten eragile batzuetako ordezkariak, aurrera eramango dituzten ekimenen berri emateko. Gazteria eta Festak saileko buru Txus Alonsok jakinarazi duenez, aurrekontua 221.586,25 eurokoa izan da aurten, iaz baino %18 handiagoa. "Kale ekitaldi gehiago kontratatu ditugu aurten, antzezlanak eta txarangak. Horrez gain, bizitzaren garestitze orokorrak ere garestitu ditu prezioak", zehaztu du zinegotziak.

Egitaraua oso-osorik irakurtzeko, eskuinaldeko QR

kodea eskaneatu behar duzue sakelako telefonoarekin. Aukera ez baduzue, lasai, datorren astean argitaratuko baitu TXINTXARRI-k sanpedroen aurreko 32 orriko zenbaki berezia; bertan jasoko ditu ekimen guztiak.

Kaleko emanaldi gehiago

Trapu Zaharra konpainiak egingo duen *Dale Ramón!* antzezlanaren emanaldia edota Mario Enzo txotxongilolariaren ikuskizuna nabarmendu ditu Alonsok, kale ikuskizunen adibide gisa. Iaz baino gehiago kontratatu dituztela jakinarazi du, "giroa alaitu eta bizitu" egin nahi dutelako. Horrekin batera, adierazi du txaranga gehiago ibiliko direla kaleetan barrena. "Horietako bateko kideak, Goxo izenekoarenak, emakumeak dira guztiak".

Haurrentzako parkeei buruz ere aritu da zinegotzia. Azaldu

duenez, urteroko puzgarri, txirrista eta ongi pasatzeko ekipamenduez gain, 13 urtetik gorako nerabeentzako eskaintza berezia prestatu dute, adin horietan "ohikoagoak" diren jokoekin: zezen mekanikoa, kart ibilbidea, futbol zelai puzgarri bat, Formula 1 simulagailua, eta abar. Horrez gain, uretako parke berezi bat jarriko dute uztailearen 2an, haurrentzat.

Aurrekontuaren erdia musika taldeak kontratatzeke erabili dute. Iragarri dituzte honezkero taldeak, baina errepasatu egin ditu Alonsok: Neomak, Zetak, Gozategi, La Guardia, Star Ways, Ibai Berriak, Puro Relajo, Duo Imperial, Supersingles, eta abar. "Askok ez dute Star Ways ezagutzen, Kataluniatik gureru etorriko den taldea; joko asko emango duela uste dut, aurtengo sorpresa izango delakoan nago".



Udal ordezkariak aurtengo kartel iragarlea eskuetan dutela. TXINTXARRI

Jaiek badute omendua eta kartela

Txema Valles Viguera kazetari erretiratua izango da ate joka ditugun San Pedro Jaietako omendua. Hala jakinarazi du udalak berriki, prentsaurrean, eta, hortaz, bera arduratuko da aurtengo txupina jaurtitzaz. Horretaz gain, aitortza bat ere egingo dio udalak. Hilaren 29an izango da hori, 13:00etan kultur etxean, eta bertaratzeko deia egin diete omenduari hurreman izan duten herriko eragile eta norbanako guztiei.

Udalak Vallesek urte luzez egindako lanari egin dio aipamena: "Urteetan idatzi du gure herriko kronika. Lasarte-Orian egin diren jarduerak, ekimen eta egitasmo guztiak eraman ditu herritarren etxetara", nabarmendu du Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok. Baina, bereziki osatu duen Lasarte-Oriaren argazkitegi historikoa jarri du fokua.

Bestalde, sanpedroak iragarriko dituen afixa irabazlea ere jakinarazi du hitzordu berean Jaietako arduradun Txus Alonsok. Kontatu du guztira 63 lanen artean hartu behar izan dutela erabakia bai herritarrek, eta baita epaile profesionalak ere. Kasu honetan, udal ordezkariak esan duenez, bat etorri dira bi alderdi horien gustuak. Hirugarren zenbakidun afixa izan da garailea, eta Cristobal Aguilo Dominguez murtziarra da egilea. Lan koloretsua aurkeztu du, eta bertan ikus daitezke sanpedroetako zenbait elementu: Sorgin Dantzako dantzariak, erraldoi eta buruhandi bana, danborradako kideak, txupinaren jaurtiketa, eta abar. Irabazleak 600 euro poltsikoratuko ditu, eta bere irudi garailea izango da festen egitarauaren azala.

Iazko "arrakastari" eutsita, gazteentzako esparrua mantendu egingo dute Oriarte Landaberri institutuko patioan. Oihan Vega, DJ Markelin, DJ Nemux eta Jaikide izango dira bertan ariko diren artistetako batzuk.

Eragileen ekimenak

Arestian esan bezala, herriko zenbait eragiletako ordezkariak bertaratu dira egitarauaren aurkezpenera. LOZET elkarteok, esaterako, erraldoi, buruhandi eta zezensuzkoekin alaituko dituzte festak aurten ere. Berrikuntza gisa, entzierro txiki batzuk egingo dituzte gauero, itxurazko zezenekin, zezensuzkoak atera aurretik.

Aterpea merkatarien elkarteak askari goxoa egiteko aukera emango diete herritarrei hilaren 29an, San Pedro egunean, tradizio

bilakatu den sardina jana egingo baitute Okendo plazan, 18:00etan. Horrekin primeran ezkonduko du, adibidez, Ttakun Kultur Elkarteak toki eta ordu berean aurrera eramango duen sagardo dastaketak. Jarduera gehiago prestatu ditu euskararen alde lan egiten duen eragile horrek; 16. orrian dituzue.

Egitaraua, osorik



Aurten ere motorzaleen biltoki izango da herria

Scoter Club Euskadi elkarteak jardueraz betetako egitaraua prestatu du, Lasarteko Zirkuitua zenari keinu berezi pare bat eginda. Ibilbide historiko hori zeharkatuko dute hilaren 18an, igandearekin, 12:00etan, Vespa eta Lambretta marketako motorrekin

Txintxarri

Iristear diren sanpedroetako aurrekarietako bat izango da Scooter Club Euskadi elkarteak antolatatu duen Vespa eta Lambretta rallya. Partaideek motorrak berotuko dituzte, literalki, festetarako. Egun gutxitan jarduera ugari aurrera eramango dituzte Lasarte-Orian, azken urteetako ohiturari jarraituz.

Gaur, hilak 16, ostirala, motorzaleei harrera egingo diete antolatzaileek, Donostia etorbidean. Ibilgailuak aparkatu eta kontu kontari aritu ostean, afari-merienda egingo dute Sancho tabernan, 21:00etan. Indarrak hartu eta gero, motor gainera igo eta erdigunean barrena ibiliko dira, gauzez. Lehen eguna amaitzeko, Buenetxea tabernan asteburuko aurreneko parranda egingo dute, Guadalajaratik etorritako musikari pare baten erritmora: DJ Zamo eta DJ Zorromono Becario.

Okendo plazan Vespa eta Lambretta marketako motor dotoreak erakutsita egingo diote hurrengo egunari. 10:00etatik aurrera bertaratu ahalko dute horiek ikustera herritarrek, Okendo plazara. Bitartean, Tiburtzio Artizar taberna



Ventanas Alcar establezimenduan aurkeztu dute egitaraua. TXINTXARRI

inguruan egongo dira motorzaleak, txalapartariak harrera egingo baitiete bertan. Indarrak beritu eta bezperako ajea leuntzeko pintxoak aterako dizkiete han. 12:00etan Scooter Run izeneko ibilaldia egingo dute, 75 kilometrokoa, eta bukatutakoan, Hernaniko Jauregi jatetxean bazkalduko dute.

Goizekoaren antzeko erakusketa bat jarriko dute arratsaldean, Andapa kalean, 18:30ean. Iluntzen hastean, Buenetxeara joango dira, bezperan bezala parranda han egitera. Los Retumbes eta

Sinciders taldeen kontzertuen ostean, abestiak jarriko dituzte Rudy Garcia eta Crackzorla musikariak.

Lasarteko Zirkuitua gogoan

Igandea izango da azken rally eguna, hilak 18. Lasarteko Zirkuitua zena gogora ekarriko dute, bertako ibilbidea zeharkatuko dutelako 12:00etatik aurrera. Bukatu eta gero, bermuta eta bazkaria Arkupe tabernan egingo dituzte, hurrengo urteko rallyra arte elkar agurtu baino lehen.

Bigarren eskuko ikasliburuen azoka egingo du Oriartekidek

Ikasleek hilaren 21ean entregatu beharko dute materiala, arratsalde, Oriarte Larrekoetxe eraikinean

Txintxarri

Oriartekide guraso elkarteak jakinarazi du bigarren eskuko ikasliburuen azoka aurrera eramango duela datorren astean, Oriarte BHIin ariko diren ikasleek 2023-2024 ikasturterako materiala eskura dezaten. Entrega eguna hilaren 21a izango da, asteazkena, 16:00etatik 18:00etara, Oriarte Larrekoetxe eraikinean. Bi egun geroago erosi ahalko dituzte koaderno, testuliburu eta antzekoak gazteek, toki eta ordu tarte berean. Azkenik, hurrengo egunean azokan bildutako dirua

jasoko dute guraso elkarteak partaideek.

Azokaren harira, zenbait ohar egin dituzte antolatzaileek. Esaterako, lehenastuna izango dutela guraso elkarteak bazkide diren familiek. Gauzak horrela, bazkide ez direnek ordu erdi izango dute liburuak erosteko, 17:30etik 18:00etara. Era berean, 5 euro garestiagoa izango da materiala haietentzat, eta saltzen duten gauza bakoitzagatik 5 euro gutxiago jasoko dituzte. Koaderno eta bestelakoek egoera onean eta erabilgarri egon behar dute.



TXINTXARRI

Lagunen aurrean aritu dira

Earra bertso eskolako kideek ikasturte amaierako saioa egin dute Gaztelekuan. Hogei bat lagun aurrean aritu dira zortzi ikasle, beraien trebetasuna erakutsiz. Haurdun dagoen gaztea edota ikastetxe aldatetaren aurrean egoera oso bestelakoak bizi dituzten bi lagun arteko solasaldia bertsoekin kantatzea egokitu zaie, beste gai batzuen artean.

<p>MAKARRONADA ETA BUSTI BLAI JAIA EKAINAK 28</p> <p>12:30 TXUPINAREN ONDOREN ELKARTUKO GARA 13:00 KALEJIRA BASAUNDIRA 14:00 MAKARROI JAN HERRIKOIA ONDOREN UR JOLASAK</p> <p>2011-2014 urteen artean jaiotako gazteentzat Txartelak salgai Ttakunen bulegoan 3 eurotan</p>	<p>SORGIN DANTZA EKAINAK 28 16:30</p> <p>ENTSEGUAK EKAINAK 20 eta 22 20:00-21:00 Okendo plazan (eguraldi txarra eginez gero, Sasoeta eskolako gimnasioan)</p>	<p>AFARI HERRIKOIA EKAINAK 28 21:00</p> <p>MENUA: Entsalada, oilaskoa, ogia, edaria, postrea eta kafea</p> <p>Txartelak salgai Ttakunen bulegoan 25 eurotan.</p>
--	--	---

2. Eskuko testuliburuen azoka

Adi!

DBH3 - DBH 4 - BATX1 - BATX2

Entrega eguna	Ekaina 23 16:00 / 18:00
Liburuak erosi	Ekaina 26 16:00 / 18:00
Dirua jaso	Ekaina 27 16:00 / 17:30

Oharra: Guraso elkarteak bazkideak ez direnentzat entrega eta liburuak erosteko 17:30 / 18:00 izango da Tokia: Larrekoetxe eraikinean

Lasarteoriatarrak, sukaldaritzaren tenpluan

Jakitea elkarteak afari eder bat eman du Basque Culinary Center-en. Zortzi ostalarik parte hartu dute ekimenean, horien artean Lasarte-Oriako hiruk: Patricio tabernako Yon Pavonek, Avenida taberna-jatetxeko Yon Mikel Rodriguezek eta Herriko Etxea-ko Javi Penasek

Txintxarri

Basque Culinary Center sukaldaritzaren unibertsitate entzutetsu eta dotorean bildu ziren Jakitea elkarteak eta Mantala Basque Gastronomy ekimenak elkarlanean antolatutako afari gozatzera joandako gastronomia zaleak hilaren 13an. Ongietorri koktel batek egin zien harrera; Yon Pavon herritarra arduratu zen lehen esperientzia gastronomiko hori prestatzeaz. Jai Alai izeneko edaria eskaini zien, kolore ilunekoa. Kontatu du 1920. urtean prestatu zuela lehen aldiz Cuba hiriburu Habanako kantineroko (koktelero) batek; dirudienek, pilotan jolasteko hiri hartan eraiki zuten frontoiaren (Jai Alai) omenez. Bermuta, ginebra, angostura apur bat, lima, limoia eta ur gasduna erabili ditu azken emaitza lortzeko. Horiek guztiak behar bezala nahasi, astindu eta edalontzi zabal batean zerbitzatu zituen; izotz eta mentaz



Yon Pavon ezkerrean, Javi Penas erdian, eta Yon Mikel Rodriguez, eskuinean. TXINTXARRI

lagunduta. Edaria gozatu bitartean, Javi Penas Lasarte-Oriako Herriko Etxeko sukaldariaren kroketak dastatu zituzten han bildutakoek. Hiru motako jaki zapoetsuak prestatu zituen: Idiazabal gaztazkoa, urdaiatzpikozkoa eta ondoena.

Ekimenari hasiera emateko jaki eta edari horiek dastatu

ostean iritsi zen lehen platera mahaietara: malko ilarrak zizekin. Aratz erretegiko Zabaleta anaiek prestatu zuten hori. Hirugarren herritarren txanda izan zen gero, Yon Mikel Rodriguezena. Avenida taberna-jatetxeko ordezkariak txangurro goxoak prestatu zituen, donostiar erara. Eta itsaskiekin jarraituz, Mikel Mayan Donostiako



JAI ALAI KOKTELA
YON PAVON

HIRU ZAPORETAKO
KROKETAK
JAVI PENAS

TXANGURROA
DONOSTIAR ERARA
YON MIKEL RODRIGUEZ

Aldanondo jatetxeko sukaldariaren arrain zopa dastatu zuten gero. Inaki Azkue El Vaskito jatetxeko arduradunak kozinatutako kokotxen txanda izan zen ondoren; saltsan eta arrautzetatuta zerbitzatu zituen. Ibarla jatetxeko Felix Mansoren jakia izan zen azken aurrekoa: bakailoa porrusalda saltsan. Eta azkenburuko prestatzearen ardura Rafa Gorrotxategi gozogilearena izan zen. Tourte

de Biscay sagar opila ekarri zuen, eta kontatu, ogi txigortuarekin, gurinarekin, mahaspasekin, sagarrarekin eta arrautzekin eginda zegoela. Horiek guztiak, noski, edari ezberdinez (txakolin eta ardo zuriak) lagunduta zerbitzatu zituztne sukaldaritzaren unibertsitateko ikasleek.

Sabelak beteta, goxo etxeratu ziren bertaratutakoak; esperientzia gastronomiko bikaina bizituta.



LOZET ELKARTEA

LOZET, Faltzeseko topaketan

Faltzeseko erraldoi Carlos III.a eta Nafarroako Blancaren 75. urteak ospatzeko, erraldoien topaketa egin dute berriko Nafarroako herri horretan. Guztira 133 erraldoi dantzatu dute bertako kaleetan zehar, horien artean, LOZETekoek. Taldekide eta senideak batuta, hemezortzi pertsonako taldetxo bat joan da bertara; esperientzia "zoragarria" bizita itzuli dira Lasarte-Oriara.



Erakusketako zenbait margolan. TXINTXARRI

Brancussi-koen lanak ikusteko azken eguna

Antonio Mercero gunean erakusten ari dira kurtsoan zehar egindako margolanak Brancussi akademiako irakasleak. Oraindik bertaratu ez diren herritarrek gaur izango dute azken aukera, hilak 16, ostirala, 18:30etik 20:00etara. Sarrera doakoa da. Hilaren 9an inauguratu zuten esposizioa eta bertan izan ziren zenbait udal ordezkari. Luntx txiki bat prestatu zuten akademiako kideek.



TXINTXARRI

Dantza taldeek itxi dute astea

Ikasturtean zehar prestatu duten lana erakutsi dute Kukukako ikasleek, 21. Antzerki eta Dantza Astean. Antzerki emanaldiak amaitu eta gero, Euskal Dantza eta Sorkuntza taldeetako kideak igo dira kultur etxeko oholta gainera, gazte zein heldu. Erakustaldien ostean, ikasten eta hobetzen jarraituko dute antzele eta dantzarietako beste agertokiren batean erakutsiko dute euren trebezia.

Andaluziako artea eta grazia ekarri dituzte Atsobakarrera

Gogotik ospatu du 28. Rocioko Erromeria Semblante Andaluz elkarteak, goizetik hasi eta iluntzera arte

Txintxarri

Ohiko egitaraua prestatu eta aurrera eraman du Semblante Andaluz elkarteak, Rocioko Erromeriaren 28. aldian. Ohi bezala, Atsobakarren elkartu dira, ohi bezala, Andaluziako

doinu, dantza, jaki eta edariez gozatzeko.

Aste Santua amaitu eta 50 egunera Pentekostes jaia izaten da, eta asteburu horretan, Rocioko erromeria aurrera eramaten dute Huelvan. Haraino

joan beharrik gabe, urteak dira Semblante Andaluz elkarteak herrira dakarrela jai hori. Erlijioari lotuta dagoenez, Arantzazuko Ama parrokian meza rozieroa egin dute.

Elizkizuna amaitu eta ama birjina hartuta Atsobakarrerantz zihoazenean, gogotik egin du euriak eta atzeratu egin behar izan dute irteera. Topagunera ailegatzean, ohorezko ardoarekin topa egin, bapo bazkaldu eta iluntzera arte dantzatu eta abestu dute zenbait talderen emanaldietan.



Herritar ugari, dantzatzen, Semblante Rociero koruaren kontzertuan. TXINTXARRI



Texas eta Ostadarren kapitainak, oroigarriekin, norgehiagoka hasi aurretik. TXINTXARRI

Lasartearraren ospakizunen ardatza futbola izan da

Izen bereko futbol klubaren barruan sortu zen mende erdia ospatzen ari den elkarte. Ekimen gehiago iragarri ditu

Txintxarri

Mende erdia urratu duela ospatzen ari da Lasartearra elkarte. Izen bereko futbol klubaren barruan sortu zen, eta horri keinu bat eginez, kirol hori ardatz duten bi jarduera aurrera eraman zituen hilaren 10ean. Lehenik, Texas eta Ostadarren arteko lagunarteko partida jokatu zuten Michelinen. Jokalariak Txomin Balza eta Mikel Etxarrik eskuetan zeramaten Lasartearraren banderaren atzetik irten ziren zelaira, eta erdigunean, oroigarri bana jaso zuten bi kapitainek, Julen Campok (Texas) eta Egoitz Rodriguezek (Ostadar). Ondoren, talde argazkia atera, eta jokoari ekin zioten: urdin-beltzak izan ziren garaile, 3-0. Errugbian ohikoa den hirugarren denboraren ondoren, bigarren hitzordua Antonio Mercero gunean aurrera eraman zuten. Bertan, Etxarrik gidatuta, herriko futbol jokalaria

eta entrenatzaile talde bat elkartu zen euren ibilbidea gogoratu eta zenbait pasarte partekatzen. Goiza Erribera kaleko egoitzan bapo bazkaldu zuten gero.

Jarduera gehiago

Gobernadore Zibilak 1973ko uztaillaren 31n eman zuen Lasartearra irekitzeko baimena, beraz, egun hori da elkartearen urtebetetze egun ofiziala. 50 urte igaro direla oroitzeko, bazkideentzat hamaiketako bat prestatuko dute aurtengo San Inazio egunean.

Ospakizun egun nagusia irailaren 24a izango da. Meza bat egingo dute hil diren bazkideak oroitzeko; ondoren, hasieratik elkarteko kide diren hamazazpi pertsonak omenduko dituzte. 13:00etan Erketz EDTk emanaldia egingo du eta gaztelu puzgarriak jarriko dituzte umeentzat, Zumaburu plazan.



360° ko murgiltze esperientziak aurki daitezke hiru ibilbideetan zehar

Zumarraga, ikusten duzuna baino gehiago da

Entzuten duzuna, dastatzen duzuna, partekatzen duzuna. Bere jendea eta bisitatzen gaituen jendea da. Merkataritza, tradizioa, berrikuntza. Zumarraga aurkitzen duzuna da.

Zumarragan zer eginik ez zaizu faltako. Hiru ibilbide aurkituko dituzu, herria eta herritarrek identifikatzen eta ezagutzen laguntzen dutenak. Zumarragako Azoka ibilbideen ardatz, herriaren historia, nortasuna eta balioak bateratzen eta erakusten dituztenak.

● Ibilbide industrialia

1930ean Zumarraga bete-betean sartu zen industrian, Esteban Orbegozo-orduan Fumisteria del Norte- lantegi instalatu berriak herritar asko eta asko lantegian aritzea eragin baitzuen; eta ordura arte txikia zen herria handi bihurtu zuen. Bestalde, herria zeharkatzen duten trenbide-sareek ere Zumarragaren garapenean oparotasuna ekarri zuten.

Ibilbidea puntu hauetatik pasatzen da: Orbegozo auzoak, Legazpi taldeko etxeak, Mendia etxeak eta Esteban Orbegozo.

✚ Hiri ibilbidea

Zumarragako Azokako postuen artean paseatzera eta herriko kaleetan ibiltzera gonbidatzen du. Tradizioa, kultura eta gastronomia, urteko data bereziak nabarmenduz: Antioko musikaldia (iraila), Santa Lutzi feria (abenduak 13), Santa Isabel jaiak (uztailak 2), Buzkantza Eguna (azaroa), Sunsundegi rallya, UZ Trail...



🌿 Natur ibilbidea

Zumarragako duen aberastasun naturalaz gozatzeko ibilbidea da. Bertan, hain preziozkoak diren ingurune berde eta

paisajistikoez beteriko esperientzia aurkitzen da: Antiotik aterata Belokiko tontorra inguratzen duen paisaia-ibilbideekin, Oletako monumentu megalitikoetara garamatzaten mendi-ibilbide guztiekin eta Antio, Loiola eta Arantzazu lotzen dituzten hiru tenpluen ibilbidearen etapekin.

Zumarraga Bide Biziko ibilbide bakoitzaren esentzia jasotzen dituen pintxoak daude eskuragarri herriko tabernetan.



Informazio gehiago hemen.

Margotu

Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da eta.



Itzala

Zortzi itzal hauen artetik zein ote da zuzena?



GAIZVLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,
VLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLUNP
VLUNPIRAWUPGAMUJZIAWUP



Zeep?!

Ezaba itzazu VLUNP,
WUP eta MUJ
guztiak eta iratxoan
gaineko esaera bat
agertuko zaizu.

DOMINOAN



Egin itzazu falta diren marrazkiak, domino zati honek zentzua izan dezan.

	I	A			R
	X		A	T	
	R	O	T		
X				A	O
I		T	X	R	
R				O	T

Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



ENGainagarriak

10 puska hauetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.





Material eta webgune berriak, jaiotzear

Buruntzaldeko udaletako Euskara zerbitzuek datorren ikasturtea hasterako jarriko dute herritarren eskura haur jaioberriak dituzten familientzako material berritua. Papera ez den kanalak erabiltzeko apustua ere egingo dute, 'euskara.buruntzaldea.eus' webgunea berrituta

Txintxarri ESKUALDEA

Buruntzaldeko sei udalek makina bat urte daramatzate jaioberrien familiei hainbat material bidaltzen: zorion gutuna, hizkuntzari buruzko aholkuak biltzen zituen *Etxeak du giltza*, ibilgailuan jartzeko pegatina eta abestien CD bat. Azken urteetan hori guztia izan da sendiekin partekatu izan dutena. "Gogo onez jaso izan dute, zalantzarik gabe, baina urteak aurrera doaz eta aldatu egin da gure gizartea; bestelakoak dira pentsaerak eta ohiturak", adierazi dute. Horren aurrean, 2022.

urtearen hasieran material hori guztia berritzeari ekin zioten, "ilusio handiz", eta dagoeneko badute esku artean lan horren emaitza, laster herritarren esku jarriko dutena; 2023-2024 ikasturtea hasten denerako, hain zuzen. Aurrerapen moduan erabili ditugu bi orri hauek janzten dituzten irudi eta ilustrazioak.

Bi erronka nagusi




Materiala berritzeko garaian bi erronkarekin topatu ziren eskualdeko udalak: alde batetik, gure herrietako biztanleria

aldatzen ari denez, gero eta gehiago dira kanpotik etortzen direnak, euskara badela ere ez dakitenak; bestetik, papera gero eta gutxiago erabiltzen denez komunikazioan, bestelako kanalak erabili behar dira. Lehenengoari dagokionez, keinu berezia egin diete gure artera etorritako horiei hainbat hizkuntzatan zoriontzarakoan, eta umeekin egunerokoan erabiltzen diren esaerak modu atseginean eskainiz. Bigarrenaren bueltan, *euskara.buruntzaldea.eus* webgunea berritzen ari dira, eta QR kodeen bidez lotzen

paperean sortu duten material berria eta atari digital horretako bestelako euskarriak: bideoak eta audioak, adibidez.

Bideoek "balio berezia" dutela nabarmendu dute, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo haur eskolen laguntza izan baitute horiek ekoizteko. "Bereziki eskertu nahi diegu egindako ahalegina eta lana".

Egitasmoaren helburua da familiak ere hizkuntzak ikasteko prozesuaren parte egitea, bidelagun izan behar baitute haurrek egingo duten bidean. Norabide horretan, hizkuntza ongi eskuratzeko baldintza egokiak ematea funtsezkoa da, bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzeko gai izango badira.



Haurtxoarekin
JOLASTEN
ABESTEN
ZENBATZEN

**JO
LA
SAK**

**ABES
TI
AK**

**E
SA
ERAK**



ONGI ETORRI
JAIOBERRI!

Zorionak guraso, eta ongi
etorri etxeko txikiari
Buruntzaldeko Euskara
Zerbitzuen izenean!

zorionak!

Saiatu euskaraz



Hizkuntzak ikasten laguntzeko ardura, familiaena ere bai

Haurrek eskolan euskaraz ikasiko duten arren, familiek ere umeen bidelagun izan behar dute hizkuntzak eskuratzeko prozesuan, horretarako baldintza aproposak eskainiz. Gizarte eleanitz batean bizi gara egun, eta gure seme-alabak halakoak izango dira. Onuragarria izango da haientzat edozein egoeratan bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzea

Guraso euskalduna(k) bazara/bazarete

- Familiako kideek beren artean euskaraz egiten badute, haurra txikitatik ohartuko da tresna baliagarria dela eguneroko bizitzarako. Euskaraz egin zuen artean, eta nola ez, umeekin ere bai!
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen: zaintzaile euskalduna hautatu, euskarazko aisialdiaren alde egin...
- Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko eta abarretan euskaraz presentzia izatea.
- Gertuko nahiz ezezagun, lehen hitza euskaraz egin beti.

Bikote mistoak

- Komeni da gurasoetako bakoitzak haurrari dakien hizkuntzan egitea, umea txikitatik elebiduna izateko. Guraso euskaldunak euskaraz egitea garrantzitsua da, eta ez dakienak hizkuntza horrekiko jarrera ona eta interesa izatea.
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen.
- Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko eta abarretan euskaraz presentzia izatea.
- Inguruan euskal hiztunak badituzue, eskatu haurrari hala egiteko, erreferente gehiago izan ditzan.
- Gertuko nahiz ezezagun, lehen hitza euskaraz egin beti.

Euskaraz ulertzen baduzu(e)

- Zuen ama hizkuntza ez bada, zaindu etxekoa eta saiatu ahalik eta eredu osoena eskaintzen. Garrantzitsua da hizkuntzarekiko harreman ona eta jarrera positiboa igortzea.
- Euskara ahal duzuen guztia erabili, ondo dakizkizuen esaldi eta formulak erabilia.
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen.
- Haurraren jaiotza motibazio euskaraz ikasten jarraitzeko eta umeari laguntzeko. Animatu eta eman izena euskaltegian!
- Eskatu zuen ingurukoei eta beste guraso euskaldunei zuei euskaraz egiteko.

Euskara ez baduzu(e) ezagutzen

- Oso garrantzitsua da jarrera ona izatea; ama hizkuntza zaintzeaz gain, beste batzuk ikasteko interesa erakustea.
- Funtsezkoa da euskara alor guztietan presente egotea: zaintzaileak, aisialdia...
- Haurraren jaiotza motibazio ezin hobea izan daiteke euskara ikasten hasteko eta umeari laguntzeko. Animatu eta eman izena euskaltegian!
- Euskarazko irakaskuntza hautatuz gero, bermatuko duzue haurrak euskararen eta gaztelaniaren ezagutza maila antzekoa izatea.
- ***Oharra:** atal honetako informazioa gaztelaniaz jasoko dute gurasoek eskuorrian.

Eskutxoa, eskutxoa,
Non zaude?
Hemen nago
Kaixo laguntxoa,
Banoa...
Ni ere bai.

Zorionak zuri,
Zorionak beti
Zorionak (izena)
Zorionak beti.

<https://euskara.buruntzaldea.eus/>

Telleria eta Gabirondo, garaile Euskal Pentatloian

Binakako Euskal Pentatloian finala jokatu dute Tolosan. Bederatzi bikotek parte hartu dute; horien artean izan dira Beñat Telleria herritarra eta Julen Gabirondo urnietarra. Emakumeen zein gizonezkoen mailetan markak ondu dituzte irabazleek

Txintxarri

Tolosako Zezen plazan Binakako Euskal Pentatloian finala lehiatu zuten hilaren 11n. Guztira bederatzi bikoteren –hiru emakumezko eta gizonezko sei-jardunaz gozatu ahal izan zuten herri kirolen zaletuek. Horien artean, Beñat Telleria lasarteoriatarra eta Julen Gabirondo urnietarra osatutako bikoia zegoen, urdinez jantzita. Telleriak eta Gabirondok gizonezko mailako garaikurra altxa zuten Izeta VI-Olaizola bikotearekin lehia estua izan ostean.

Arratsaldeko lehen txandan, emakumezko lehiaketa izan zen. Nerea Arruti eta Amalur Arbelaiz izan ziren nagusi eta 23 minutu eta 24 segundoko markarekin garaile izan ziren. Bigarren postuan Lur Errekondo eta Oihana Fernandez De Barrenak amaitu zuten eta Lucia Orbe eta Julia Martinez hirugarren izan ziren.



Gabirondo eta Telleria, urdinez, pentatloia irabazi ostean. TOLOSALDEAKO ATARIA

Gizonezko sei bikoteak, aldiz, bi saio ezberdinetan banatu zituzten eta Telleria-Gabirondo bikoteari lehenengo txandan egokitu zitzaizen jokatzeko. Era horretara, Zelai IV-Zelai V eta Zaldúa-Mugertza III izan ziren euren aurkariak.

Txanda bakoitzean bost probari aurre egin zieten lehiakideek. Gizonezkoen kasuan, 40 altxaldi 100 kiloko bolarekin; harritartzean, lau plaza 400 kiloko harriarekin; aizkoran, lau kanardiko moztu behar izan zituzten; txingekin, sei plaza, eta,

bukatzeke, lau kilometro korrikan, hau da, 40 itzuli zezen plazari.

Harri jasotzen aurkarietako errenta hartu zuten urdinek; harri tiratze saioa amaitzen ere lehenak izan ziren eta atzetik zituzten Zelaiatarrei minutu eta 32 minutuko aldea atera zieten. Aizkoran aldea handitzea lortu zuten. Nahiz eta txingekin denbora galdu, azken proban ederki jardun ziren herritarra eta urnietarra eta 36 minutu eta 15 segundo eginez lehen postuan amaitu zuten Euskal Pentatloia.

Eta bigarren txandaren emaitzaren zain, geratu zen bikotea; Izeta VI-Olaizola, Irazabal-Amade eta Kañameres III-Otaegi bikoteak neurtu zituzten indarrak.

Markaren zain

Kirioak dantzan izan zituzten urdinek; Izeta VI eta Olaizola bikoak lan ederra egin zuen-eta. Bigarren txandako buru jarri ziren eta aizkora saiora arte, ez zuten Telleria-Gabirondoren marka gainditzerik izan. Txingetan ere 10 segundo aurretik mantendu ziren. Korrika saioa amaitzean, ordea, ezin izan zuten lasarteoriatarra eta urnietarra egindako marka gainditu. Eta Beñat Telleriak eta Julen Gabirondok jantzi zuten Binakako Euskal Pentatloiko txapela.

Podiumeko azken mailan, Irazabal eta Amade sailkatu ziren.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

JOSE MARTIJA OROIMENEZKOA

Los Chavales de Martijak antolatuta Jose Martija oroimenezkoa jokatu da. Alebin mailako hamabi taldek parte hartuko dute. Larunbata. Egun osoa. Michelin kirol gunean.

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo alebin mailako igerilariak Gipuzkoako Adinen arteko txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Zubikoa kiroldegian. Oñatin.

ATLETISMOA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ostadar SKTKo eta herriko atletik maila absotutuko Euskadiko txapelketa jokako dute.

Larunbata eta igandea. Gasteizen. Araban.

GIMNASTIKA

ERAKUSTALDIA

LOKEko gimnasten denboraldi amaierako erakustaldia izango da.

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

JUDO

ERAKUSTALDIA

LOKEko judoek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute.

Igandea. 10:15. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

SAN PEDROETAKO TXAPELKETA

Esku pilotako sanpedroetako txapelketako jardunaldia izango da. Larunbata eta igandea. 10:30. Loidibarren pilotalekuan.

TRIATLOIA

LEKEITIOKO TRIATLOIA

Herriko kirolariak Lekeitioko 30. Triatloia lehiatuko dute.

Larunbata. 16:00. Lekeitio. Bizkaian.

Donostia Arraun Lagunak, hirugarren Euskadiko txapelketan

Hondarribia bosgarren izan da. Gipuzkoako txapelketan ere hirugarren postua eskuratu du Donostiako taldeak

Txintxarri

Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketa lehiatu dituzte Herritarrek kide dituzten arraun ontziek.

Hilaren 4an, Zarautzen. Hirugarren izan zen Aiora Belartietak herritarra Donostia Arraun Lagunak taldearekin. Hondarribia AE eta Intza Fernandez, aldiz, laugarren izan ziren.

Eta biek aste bete ondoren lehiatuko zen Euskadiko Ondarroan txapelketarako txartela eskuratu zuten.

Gaizka Ormazabal kide duen Hibaikak, berriz, hamargarren postuan amaitu zuen txapelketa.

Euskadiko txapelketa

Hilaren 11n, Ondarroan, Donostia Arraun Lagunak postu bera erdietsi zuen Euskadiko txapelketan. Hondarribiak, ordea, maila bat jaitsi zuen eta bosgarren izan ziren.

Herritarren bi ontziek lehen txandan neurtu zituzten indarrak. Nagusi izan zen Lugañene, Tolosaldea bigarren izan zen eta Hondarribia hirugarren.

Bigarren txandan, ordea, lehiaketako garaile izan zen Donostiarrak eta Oriok Belartietak kide duen eskifaiak egindako denbora ondu zuten. Beraz, hirugarren postuarekin konformatu behar izan zen Donostia Arraun Lagunak.

Bestalde, egun bat lehenago, hilaren 10ean, Lekeitioko ikurriña jokatu zen. Bertan, Ormazabal eta Hibaikak parte hartu zuten saioan. Bermeo-Urdaibai izan zen garaile eta Hibaika hamaseigarren izan zen.

Liga hasiera

Bi aste geratzen dira Belartietak eta Fernandezek denboraldia hasteko. Uztailaren lehen A Coruñan izango dute Euskotren Ligako lehen hitzordua. Ormazabalek, aldiz, hilaren 24an emango dio hasiera KAE2 Ligari, Mutrikin.

Ostadar Atletismoko kideak jardun ederra egin dute

Bost domina lortu dituzte talde urdin-beltzeko atletak 18 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan

Txintxarri

Ostadar Atletismo saileko kideek txapelketa garrantzitsua lehiatu dituzte azken asteetan. Maila ederrean jardun dira eta podiumean izan dira talde urdin-beltzeko atletak.

Gipuzkoako Adin Txikiko txapelketako bigarren jardunaldian, Ostadarreko 18 urtez azpiko gazteek lortu zituzten emaitzarik onenak. Aiala Ramos lehena izan zen xabalina jaurtiketan eta hirugarrena jauzi hirukoitzean. Oinatz Almagro garaile izan zen jauzi hirukoitzean; June Garcia, aldiz, bigarren proba berean. Hodei Garciak ere

podiumeko bigarren postua eskuratu zuen xabalina jaurtiketan.

Markak fintzen

Narrea Furundarena taldekideak, aldiz, Bidasoa Atletico taldearekin parte hartu zuen hilaren 10ean. Ohorezko mailan mantentzea zuen jokoan taldeak; ezin izan zuten helburua lortu. Alabaina, herriko atletak jauzi hirukoitzean 13,18 metroko jauzia egin eta garaile izan zen.

Astebeteko lehenago, Salamancako nazioarteko lehiaketan, proba berean hirugarren sailkatu zen.

Berdintasuna nagusi Lasarteko Sarian

Berrikuntza modura, aurten maila eta gaitasun ezberdinetako igerilariak batera egin dute lehia Lasarteko 32. Sarian. Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek lortu du sari nagusia eta antolatzaileen eskutik omenaldi xume bat ere jaso du igerilari gazteak

Txintxarri

Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan hitzordu ederra izan zen hilaren 10ean; Lasarteko 32. Saria jokatu zuten. Dominak, oroigarriak, omenaldiak eta batez ere berdintasuna izan ziren nagusi. Izan ere, aurten pertsonen saria izan da kirol jarduera. Ez da inongo bereizketarik egon, neska eta mutilak elkarrekin egin dute lehia eta igeriketa egokitutako kideak ere barne hartu dituzte. Eta sailkapenak egiterakoan FINA eta Multidisability taulak kontuan izan zituzten Buruntzaldea IKTko antolatzaileek.

Etxeko igeriketa taldeko kideez gain, Zarautz Balea IK, Hernani KE, AD Gaude KE, Konporta eta Amaya CD igerilariak izan ziren uretan lehian.

Maila ezberdinak

Goizean, A eta B kategoriako kanporaketak jokatzear gain, igerilari gazteenei sariak eman zizkieten.

Arratsaldean, 2011. urtean eta ondoren jaiotako probak zein aurre-benjaminen erakustaldia izan ziren, baita finalak eta sari banaketak ere.

Maila ezberdinetako probak tartekatuz joan ziren antolatzaileak. "Txikienek taldeko



A kategoriako podiumera igo ziren igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

igerilari helduenak ikusteko aukera izan zuten. Haientzat erakargarria izateaz gain, ikasteko aukera handi bat ere izan zen", adierazi dute antolatzaileek.

Ohitura den moduan, Australiana probak biribildu behar zuen jarduera. Arazo teknikoak medio, ezin izan zen egin.

Bost saritu

E maitzei dagokionez, Buruntzaldea IKTko arduradunak pozarren daude. Igeriketa taldeko kideek marka pertsonal ugari ondu zituzten, finalak jokatu zituzten eta domina ugari jantzi. Azken sailkapenean ere lau kide izan ziren lehen bosten artean.

Sari Nagusia Nahia Zudairek eraman zuen eta taldeko Garazi Etxeberria, Miren Sarobe eta

June Lopez lagun izan zituen. Zarautz Balea IK taldeko Gaizka Rodriguezek podiuma osatu zuen.

Horrez gain, lehiaketa ezberdinetarako gutxieneko markak egin zituzten eta aipagarriena 50 m. librean Iñaki Garciak lortutako Espainiako txapelketarako txartela da.

Zudaireri omenaldia

Probako sari gorena ez zen Zudairek eraman zuen oroigarri bakarria izan. Arratsaldeko saio hasi baino lehen, omenaldi modura, plaka bat eman eta agurra dantzatu baitzuten Buruntzaldea IKTko kideek: "Klubari eskainitako kirol ibilbidea eskertzeaz gain, berari esker kirol egokituaren inguruan klubak asko ikasi duela eta horrekiko ikuspegi berri bat duela argi utzi nahi izan genion".

Hiru zilarrezko domina berri

Ostadar Inklusio taldeko Gorka Uzkudun eta Ane Asensio Getafen, Madril hilaren 10ean eta 11n jokaturako gorpil aulkiko eslamon Espainiako txapelketan parte hartu eta zilarrezko hiru domina jantzi zituzten. Erlojupeko proban bigarren postua eskuratu zuten biek eta Asensiok, gainera, kanporaketa saioko podiumeko bigarren mailara igo zen.



OSTADAR INKLUSIOA



Omenaldiaren ostean, taldea argazkia atera zuten. TXINTXARRI

Infantilei omenaldia egin die Eguzki Areto Futbola klubak

Jokalariak, gurasoak eta taldeko arduradunak Okendon bildu dira. Entrenatzaileek ere jaso dute oroigarria

Txintxarri

Eguzki Areto Futboleko infantil taldea Gipuzkoako eta Euskadiko txapelkun izan da amaitu berri den denboraldian. Aurreko astean Toledon jokaturako Espainiako txapelketan ez zuten lehen fasea gainditzerik izan, baina, hala ere, klubak omenaldia egin nahi izan die jokalariei. Okendo plazan elkartu ziren hilaren 10ean, besteak beste, taldeko haurrak eta euren gurasoak.

Txalo artean eta *Campeones* marrazki bizidunetako abestiak lagunduta, eskuratu dituzten bi

kopak zeuden mahairaino joan ziren taldekideak. Ilara osatu, eta agurra dantzatu zieten.

Ondoren, Gorka Redondo entrenatzaileak hitza hartu zuen, eskertza gisa, jokalaria bakoitzari opari bana egingo ziotela azaltzeko.

Denek beraiena jaso zutenean, entrenatzaileen txanda izan zen; gurasoek eta jokalariek prestatutako oroigarri bana eman baitzieten Edu Mena eta Redondori. Hunkituta jaso zuten.

Amaitzeko, talde argazkia egin zuten plazan.

Intzako pilotariak, ezin Lau eta erdiko txapelketan aurrera egin

Diaz de Gereñuk eta Olazabalek euren neurketak galdu dituzte; Urdanpilletak lehia utzi behar izan du

Txintxarri

Intza Kirol elkarteko jubenilak banakako Lau eta erdiko txapelketatik kanpo geratu dira eta lehia federatuko denboraldiari amaiera eman diote.

Haritza Diaz de Gereñuk hilaren 3an Oiarpeko Lasaren aurka jokatu zuen Loidibarren pilotalekuan.

Neurketako lehen minutuetan ederki jardun zen herritarra. Aurkariak pilota aldatzean, ordea, zailtasunak izan zituen Diaz de Gereñuk jokora moldatzeko eta oiartzuarra 12-22 nagusitu zen.

Peru Urdanpilletak, aldiz, txapelketa nagusiko final laurdenetan jokatu behar zuen hilaren 10ean. Alabaina, arazo fisikoak direla-eta, lehiaketa uztea erabaki du. "Pena bat da, txapelketa ona egiten ari zen", adierazi du Intzako arduradun Jose Felix Solanok.

Bestalde, Beñat Olazabalek Ekialdeko txapelketako kanporaketa izan zuen hilaren 9an.

Behar Zanako Arruti izan zuen aurrez aurre Villabonako Amasa pilotalekuan eta 22-12 gailendu zen etxeko pilotaria.



Txus Alonso zinegotzia, lehiaketako antolatzaileak eta Jose Martijaren senideak aurkezpenean. TXINTXARRI

Jose Martijaren omenez jokatzeko prest

Alebin kategoriako lehen mailako hamabi talde ariko dira aurrez aurre egun osoan zehar iraungo duen jardueran bihar, hilak 17. Los Chavales de Martija antolatzaileek Gorka Brit futbol jokalaria ohiari omenaldia egingo diote bere ibilbidearengatik

Txintxarri

Hilaren 9an aurkeztu zuten udaletxean Jose Martijaren omenezko VI. Txapelketa Josu Martijak eta Antonio Galanek, Kirol zinegotzi Txus Alonso ondoan zutela.

Hamabi talde lehiatuko dira: Ostadar, Texas Lasartearra, Añorga, Antiguoko, Real Union, Vasconia, Martutene, Euskaldunak, Kostkas, Real Sociedad, Eibar eta Racing de Santander. Hiru multzotan banatu, eta lehen norgehiagokak amaituta, talde bakoitzeko lehenengo biak eta bi hirugarren onenak Champions-era sailkatuko dira; hirugarren txarrena eta laugarren gelditutakoak, berriz, UEFARA.

Hortik aurrera, kanporaketak jokatu dituzte eta bi final.

Michelingo ateak 09:00etan zabalduko dituzte, eta ordu erdira, omenaldia egingo diote Gorka Brit futbolari ohiari. Lasarteoriarrak Osasuna, Numancia, Real Union eta Salamancan jokatu duela gogoratu zuen Martijak, eta hain zuzen ere, bere ibilbidearengatik aukeratu dute. Horren ondoren, 10:00etan, partidei ekingo diete.

Antolatzaileak herritarrek gonbidatu ditu bertara daitezela. "Egun oso polita izaten da, giro oso sanoarekin. Mutikoengatik eta mutikoentzat egiten dugu, jaten ematen diegu, zaintzen ditugu...Ondo pasatzeko eguna

da", laburbildu du Martijak. Eta iazko sargoria gogoan, norbaitek zalantzarik balu, zehaztu du: "Eguraldi ona egingo du, iaz baino bero gutxiago".

Alonsok ere hitz batzuk esan zituen. Eskerrak eman zizkien Los Chavales de Martija taldeko lagunei, beste behin txapelketa antolatu izanagatik. "Konbentzitura nago, han goian, Jose oso harro egongo dela lortutakoaz, garai hartako mutikoekin horrenbeste landu zuen espiritua bizirik mantentzeaz". Hau da, Galanek nabarmendu bezala, kirola errespetutik bizitzen barneratu ziela. "Ziur egun ikusgarria izango dela, beti bezala", gehitu zuen Alonsok eta goza dezaten opa egin.

LOKEko judoek, danak eta lehiaketak metatzen

Espainiako kopako jardunaldia eta Europako txapelketa lehiatu dituzte herriko judoek; gerriko beltzeko azterketa ere izan dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko (LOKE) judoek azken asteetan hiru hitzordu garrantzitsuri egin diete aurre; horietako bat, beterranoen Europako txapelketa izan da.

Hilaren 2 eta 3an, Haritz Urdangarin kidea 39. Pirineos-Pyrenees Jose Maria Lacasta Oroimenezkoa den Espainiako Kopan lehiatu zen Jacan, Aragoien. 90 kilo azpiko mailan borrokatu zen gaztea eta

zazpigarren postua eskuratu zuen.

Eslovenian izan da, aldiz, Asier Sagasti. Hilaren 8tik 11ra beterranoen Europako txapelketa jokatu zuen Podcetrtek herrian. Lasarteoriarrak M1 100 kilo azpiko kategorian parte hartu eta zazpigarren postuan amaitu zuen lehia.

Bi borroka egin zituen LOKEko kirolariak. Lehenean aurkari gogorra izan zuen Sagastik; gerora txapeldun izan zen Valeri Maleashevici errumaniarra.



Bi taldeak, partida amaitzean. OSTADAR FUTBOLA

Ezin Gorri garaipena eskaini

Ostadar SKTko kadete taldeak Kopako final borrokatua jokatu zuen hilaren 10ean. Aizkorrik eraman zuen garaikurra, ordea. Lehen minutuetan hotz hasi zen talde urdin-beltza. Hamargarren minutuan egoerari itzulita eman eta bi jokaldiri esker, 2-0koa jarri zuen Ostadarrek markagailuan. Minutuak igaro ahala aurkariak egoerara moldatu eta bi komerretan neurtuta berdintzea lortu zuten. Bigarren zatia orekatua hasi zen. Alabaina, defentsan arazoak sortzen hasi zen Segurako taldea eta baloi luze baten ostean, hirugarren gola egin zuen aurkariak. Berdinketaren bila aldaketak egin zituen Ostadarrek, baina kontraeraso batean laugarrena egin zuen Aizkorrik. Beñat Loiarde entrenatzailea pozarren dago kirolariak egindako lanarengatik. Pena du, ordea; laguntzaile duen Gorriren azken neurtuta zen eta ezin izan zioten garaipena eskaini.



Alebin taldea eta entrenatzailea, txapeldun ordearen koparekin. TEXAS LASARTEARRA

Alebinak, txapeldunorde Pasaian

Texas Lasartearra CFko 2012 urteko alebin eta 2014 urteko benjaminen Pasaia Torneoa jokatu zuten hilaren 10ean eta 11n. Benjaminen ezin izan zuten azken fasera sailkatu; alebinak lan ederra eginez, finalera iritsi ziren. Trintxerperen aurka neurtu zituzten indarrak azken norgehiagokan eta 2-0 galdu zuten.



Gerriko beltz berriak. LOKE JUDO

Herritarrek ahalegina egin arren ezin izan zuten aurkaria gailendu.

Bigarren aukeran, Mathurin Ligor frantziararen aurka neurtu zituen indarrak. Frantziako judoka gailendu zen eta herritarrek ezin izan zuten brontzezko dominaren bidean aurrera egin.

Bestalde, Iker Izquierdo eta Aitor Santosek gerriko beltza lortzeko azterketa gaituratu zuten hilaren 11n eta lehen daneko gerriko beltza jantzi dute bi judoka gazteek.

"Zure lana tapizean ikustea zirraragarria da"

GARAZI GOMEZ LOKE-KO GIMNASTA ETA ENTRENATZAILEA

24 urteko jardunaren ostean, lehiatzeari utziko dio denboraldi amaieran. Ez ditu puntak alde batera utziko, ordea; entrenatzaile lanetan jarraituko du LOKE

Nerea Eizagirre

Donostiarra den arren lotura handia du Garazi Gomez (Donostia, 1993) gimnastak gure herriarekin. 6 urterekin hasi zen kirol jarduera horretan Ekintza ikastolan eta zortzi urterekin, Maite Ruedak gomendatuta, Lasarte-Oria Kirol Elkartean (LOKE) entrenatzen hasi zen. Denboraldi amaieran lehiaketari agur esango dio eta entrenatzaile lanetan jarriko du arreta. Urte hauetan izan dituen entrenatzaileei -Maite Rueda, Cristina eta Amaia Calvo- eskertua dago Gomez, kirolaz gozatzen irakatsi diotelako.

Zergatik hasi zinen gimnastika egiten?

Ikastolan kirol aukera zabala genuen: futbola, saskibaloia, hockeya...Eskola Kirolan izena eman nuen eta horien artean gimnastika erritmikoa zegoen. Nik dantza egitea gustuko dut. Artea eta antzerkia. Nahasketa bat da kirol hau, eta, horregatik, gimnastika egitea erabaki nuen. Maite Rueda LOKEko prestatzailea zen nire entrenatzailea ikastolan. Lasarte-Oriara entrenatzera etortzeko esan zidan, eta gaur egunera arte.

24 urtetan maila ezberdinak Gipuzkoako zein Euskadiko

txapeldun izan zara eta podiumera igo zara behin baino gehiagotan. Zein izan da zuretzat garaipenik bereziena?

Unibertsitatera joan baino lehen, bakarkako lanean Gipuzkoako txapeldun izan nintzen eta senior taldeak ere garaipena lortu zuen. Oso berezia izan zen.

Zenbat entrenamendu saio egiten dituzue maila horretara iristeko?

Unibertsitatea baino lehen astean hiru saio egiten nituen. Unibertsitatean bi egunetan entrenatzeko baimena eman zidaten eta gaur egun, saio bakarra egiten dut.

Unibertsitatea aipatu duzu, ikasketak eta kirol jarduera uztartu dituzu. Nola joan da?

Ondo joan da. Txikitatik egin dudana gauza izan denez, normaltasunez eraman dut. Diziplina bat nuen, eta, egunaren arabera, entrenamenduak baino lehen ikasi edo ostean.

Baina egia da unibertsitatera Salamancara joan nintzenean urtebete egin nuela gimnastika egin gabe. Gogorra izan zen, nik jarraitu nahi nuelako. Horregatik unibertsitateari eskaera egin nion kiroldegian entrenatu ahal izateko. Eta baiezkoa eman zidaten.

Beraz, hilabete behin nentorren eta Maite eta Amaia Calvo entrenatzaileekin batera



Garazi Gomez, erakustaldian uztaiarekin lanean. G. GOMEZ

guztia muntatzen genuen eta han entrenatzen nuen bakarrik. Horrela hiru urtez egon ginen. **Kirol hau egiten min hartu al duzu noizbait?**

Zortea izan dut, bitan min hartu dut bakarrik eta gauza txikiak izan dira. DBHn, entrenamendu batean hatz txikia okertu nuen. Etxera hatz potolo-potoloarekin iritsi nintzen eta erakustaldia

galdu nuen. Eta Batxilergoan nintzela, orkatila bihurritu nuen, bigarren graduakoa zaintiratu. Eta hilabete bat edo hilabete eta erdi egon nintzen geldi.

Kirolari izateaz gain, entrenatzaile lanak ere egiten dituzu. Noiz hasi zinen?

Txikitatik hasi nintzen. Ikastolan ni baino zaharragoak ziren kirolariekin laguntzen nion Maiteri. Gauzak nola zuzentzen zituen ikusten nuen eta pixkanaka ikasten joan nintzen. 15 urterekin ordezkapenak egiten hasi nintzen eta hortik aurrera, ikastaroak egin nituen entrenatzaile modura lan egin ahal izateko.

Zer da zailagoa, kirolari izatea edo entrenatzaile izatea?

Bi kontu ezberdin dira. Entrenatzaile lana polita eta gogorra da. Zuk dohain batzuk ikusten dizkiozu pertsona bati eta mugimendu bat egiteko gai dela uste duzu. Egitera iristen bada, zoragarria da. Baina ez bada iristen frustrazio puntu bat duzu, gauzak moldatu behar dituzu...eta zure lana tapizean ikustea zirraragarria da.

Kirolari bezala, nik, esate baterako, asko gozatzen dut egiten dudanaekin; entrenatzerakoan, gauzak probatzerakoan, ikasterakoan...Ez naiz 'hau dakit eta listo'-arekin konformatzen, gauza gehiago ikasi nahi ditut.

Denboraldi amaieran lehiatzeari utziko diozu. Zein izan da arrazoia?

Faktore ezberdinak daude nire erabakirako. Entrenatzaile modura erantzukizun gehiago hartuko ditut Maitek eskatuta. Bestetik, heldua naiz eta astean entrenamendu saio batekin, ezin dut nik nahiko nukeen maila eman txapelketetan. Pentsatua nuen 30 urtetara arte iristea, bukaera biribila izateko.

Ez da ohikoa 30 urteko gimnasta bat lehiari ikustea, ezta?

Normalean, 18 eta 25 urte bitartean uzten diote kirolariak gimnastika egiteari, Unibertsitatean edo Goi Mailako ikasketak egin behar dituztenean.

Nazioarte mailan, aurten 29 urte dituen Ekaterina Vedeneeva lehiatu da. Gainerakoak gazteagoak dira. Almudena Cid ere 28 urtera arte ibili zen, baina ez da ohikoa.

Aurten denboraldi ederra izan duzue eta gimnasta asko podiumean izan dira. Ongi lan egin duzuenaren seinale izan da, ezta?

Ez dut gogoratzen horrelako urterik. Guztiak egon dira faseetan edo finalean podiumean eta lehen postuetatik gertu. Pozarren gaude. Araudi berria ongi ulertu dugunaren seinale izan da.

Baina araudi aldaketa izan duzue?

Bai, hori da. Joko Olinpikoen ostean, araudi berria jakinarazten dute. 200 bat orrialdeetako txostena da eta pixkanaka horretara moldatzen ditugu lanak. Gainera, txapelketa iritsi arte ez dakizu araudia ongi ulertu duzun. Aurten ere horrela izan da. Otsailean lehiara iristean epaileek nola puntuatzen zuten ikusi genuen eta ederki egin genuela ikusi genuen.

Hala ere, pila bat gozatu dut, batez ere, jubenil mailako taldearekin. Haiek ere sorkuntzan parte hartu dute. Ideia eman nien eta entrenamendu saioetara etortzen ziren euren proposamenak emanez, eta gero dantzara moldatzen genituen. Politza izan da.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus atarian



Gimnastika ataleko entrenatzaileak. LOKE GIMNASTIKA

LOKEko denboraldi amaierako ekimenak

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastika eta judo sailek denboraldi amaierako erakustaldiak eskainiko dituzte hilaren 17an eta 18an.

Tapizera ateratzen lehenak taldeko gimnastak izango dira. Hilaren 17an, 16:00etan, Maialen Chourraut kiroldegian izango da hitzordua.

Beroketak egin eta banaka zein taldeak kirolariak esku hutsik edo tresna ezberdinekin euren trebetasuna erakutsiko dute.

Horrez gain, Garazi Gomezek aurreratu duenez, aurtengo emanaldia kirol horretako hainbat alderdi erakusteko baliatuko dute.

Judoko kideek, aldiz, egun bat beranduago, 10:15ean, tatami erraldoian bihurtuko dute kiroldegiko kantxa. Adin ezberdinak kirolariak ariko dira.

Ostean, LOKEko atal guztiak batuko dira denboraldi amaierako bazkarian. Mahaiaren bueltan sail bakoitzak oroigarri banaketa egingo du.




Iazko judo erakustaldiko irudia. TXINTXARRI

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Iker
Zorionak, Iker Bros!
Gure kuadrillategiko The Boss! Hasiera bikaina eman genion asteari zuri esker, a zer nolako patata tortila ekarri zenigun... Noizko hurrengoan? Urte askotarako, gazte! Ttakuneko lankideak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaileekin ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 16 GANDARIA-URIBE

LARUNBATA, 17 DE MIGUEL

IGANDEA, 18 DE MIGUEL

ASTELEHENA, 19 DE ORUE

ASTEARTEA, 20 DE MIGUEL

AZTEAZKENA, 21 LASA

OSTEGUNA, 22 GIL

EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95

GAUEKO FARMAZIAK: 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

ESKELA

OROIGARRIA

Maria Teresa Larrañaga Alonso

(Sebastian Kerejeta lehendakari-ohiaren emaztea)

-Goian bego-

2023ko ekainaren 12n hil zen,
86 urte zituela.



Besarkada handi bat familiari

Ttakun Kultur Elkarte

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabilta. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Iratzi)

LANA

ESKAINITZA

Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean 20 orduz lan egiteko eta, ahal dela,

berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu, lanaldi erdiz. Harremanetarako zenbakia, 695 78 32 02. Game Master bila gabilta. Euskaraz jakitea, asteburuetan lan egiteko prestatutasuna eta Lasarte-Oriakoa izatea baloratuko ditugu. Bidali CV info@quantum.eus-era

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun

baten bila gabilta. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644116122

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak

ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68. Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

mekanizatua egin dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583. Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz.

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583. Lan bila nabil interna, orduka edo asteburuetan.

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

Adineko pertsonak zaintzen eskarmentu handia dut. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38. Interna gisa egingo nuke lan, astelehenetik

igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak zaintzeko Eusko Jaurilaritzaren ikastaroaren ziurtagiria ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke, edota garbiketa lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

SALEROSKETA

SALDU

Su egurra saltzen da (haritz), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Nikola
Iraola, Xuban Urdaleta, Sergio
Hernandez, Ander Hazas, Endika
Merchan eta Gorka Morales.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 16

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi akademiako ikasleen erakusketa ikusteko azken eguna. Sarrera, doan.

Antonio Mercero gunea, 18:00etatik 20:30era.

LASARTE-ORIA Jaia

Scooter Club Euskadi elkarteak antolatutako rallyaren lehenengo eguna izango da. Hauxe izango da egitaraua:

19:00etan, motorzaleei harrera Donostia etorbidean.

21:00etan, afaria Sancho tabernan.

22:30ean, gau ibilbidea.

23:00etan, festa Buenetxea tabernan: Guadalajaratik etorritako DJ Zamo eta DJ Zorromono Becario musikariak ariko dira.

Herrian zehar, 19:00etan hasita.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Jaia

Scooter Club Euskadi elkarteak antolatutako rallyaren bigarren eguna izango da:

10:00etan, motorren erakusketa Okendo plazan.

11:00etan, txalapartariak harrera egingo diete motorzaleei, Tiburtzio Artizar tabernan.

12:00etan, 75 kilometroko ibilaldia, Okendotik abiatuta.

15:00etan, bazkaria, Hernaniko Jauregi jatetxean. Opari eta sariak zozkatuko dituzte ondoren.

18:30ean, motorren erakusketa Andapa kalean.

21:30etik aurrera, afaria eta festa Buenetxea tabernan: Los Retumbes eta Sinciders taldeak, Rudy Garcia eta Crackzorla.

LASARTE-ORIA Dantza

Erketz EDT dantza taldeko lagunek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute.

Okendo plaza, 19:00etan.

IGANDEA 18

LASARTE-ORIA Jaia

Scooter Club Euskadi elkarteak antolatutako rallyaren hirugarren eta azken eguna izango da:

11:15ean, Zirkuitu ibilbidean elkartuko dira motorzaleak.



LASARTE-ORIA Dantza ikuskizuna. Erketz EDT dantza taldeko lagunek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute, Okendo plazan. Kurtsoan zehar entseatutako koreografiak erakutsiko dizkiete ikus-entzuleei. Bestalde, gogorarazi dute San Joan bezperako ospakizunerako sokadantza prestatzeko entseguak egiten ari direla Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeko patioan, 20:00etan. Azken saioa hilaren 20an izango da, asteartearrekin. Bihar, hilak 17, Okendo plazan, 19:00etan.

12:00etan, Lasarteko Zirkuitua zenaren ibilbidea zeharkatuko dute, mendeurrena ospatzeko.

12:30ean, bermuta hartuko dute Arkupe tabernan.

14:30ean, bazkaria Arkupen eta aurtengo rallyaren amaiera.

LASARTE-ORIA Zinema

Lasarte-Oria: istorio zumez egina dokumentala estreinatuko du Ihitten elkarteak. Proiektzioaren aurretik lana aurkeztuko dute kideek. Sarrera doakoa da eta ikus-entzuleek ez dute gonbidapenik eskatu behar. Kultur etxea, 19:00etan.

ASTELEHENA 19

LASARTE-ORIA Jokoak

Biyak Bat elkarteak emakumeen toka txapelketa antolatu du. Isla plaza, 16:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek kurtso bukaerako hiru kontzertuetako lehenengoa emango dute. Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 20

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek kurtso bukaerako hiru kontzertuetako bigarrena emango dute. Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Dantza

San Joan bezperako sokadantza prestatzeko azken entsegua egingo du Erketz EDT dantza taldeak. Garaikoetxea-Landaberri, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Dantza

Sorgin Dantza prestatzeko entsegua egingo dute. Okendo plaza, 20:00etan.

ASTEAZKENA 21

LASARTE-ORIA Literatura

Bergarako Idazle Eskolako lagunek 2. Ilunabar Literarioa egingo dute: Hatsaren poesian argitaratutako poema batzuk irakurriko dituzte, eta, ondoren, aurtengo Santa Ana parodiako eszenetako bat. Julen Basterra gitarra jotzaileak girotuko du ekitaldia. Ttakunenea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek kurtso bukaerako hiru kontzertuetako azkena emango dute. Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 22

LASARTE-ORIA Erakustaldia

Biyak Bat elkarteko kideek gimnastika erakustaldia egingo dute. Maialen Chourraut kiroldegia, 12:00etan.

ZINEMA



DOKUMENTALA

'Lasarte-Oria: istorio zumez egina'

Herria, emakumeen ikuspuntutik

Ihitten elkarteak bere lan "kuttuna" estreinatuko du etzi, hilak 18, kultur etxean, 19:00etan; *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala. Sarrerak doakoak dira eta ikus-entzuleek ez dituzte gonbidapenak eskatu behar leihatilan. Proiektzioaren aurretik, lana aurkeztuko dute egileek.

Hiru belaunaldi desberdinetako zenbait emakume herritarren lekukotzak jaso, eta zumearekin nola, elkarri lotu, ehundu eta txirikordatu dituzte egileek. Argi adierazi dute dokumentala ez

dela Lasarte-Oriaren historiari buruzko errepasso kronologiko bat; herriaren bilakaera eta gai gehiago jorratu dituzte emakume horien ikuspuntu eta testigantzetatik.



LASARTE-ORIA Musika

Solaskide egitasmoko partaideentzat mintzapintxopoteoa, eta, ondoren, Maialen Aristegiren kontzertu akustikoa.

Jalgi kafe antzokian, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Zinema

Lasarte-Oria: istorio zumez egina dokumentala proiektatuko dute. Ondoren, tertuliatxo bat egingo dute, ikus-entzunezkoan parte hartu duten emakumeetako bi gonbidatuta. Antonio Mercero gunea, 18:00etan.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Jaia

San Joan bezpera ospatuko dute herritarrek.

21:30ean, udaletxe zaharretik abiatuko dira udal korporazioko kideak, Andatza plazarantz, Erketz EDTko dantzariak lagun dituztela.

21:45ean, Andatzara iritsi bezain laster, San Joan zortzikoa eta Sokadantza dantzatuko dituzte, Alboka Abesbatzak eta Zero Sette

Akordeoi Orkestrak lagunduta.

22:00etan, San Joan sua piztuko dute.

Udaletxe zaharra, 21:30ean.

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Zunba

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroko kideek antolatuta, zunba maratoia egingo dute. Edonork parte hartu ahaliko du. Okendo plaza, 10:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Alboka Abesbatzak ikasturte amaierako emanaldia egingo du. Sarrera doakoa izango da. Komentuan, 19:00etan.

IGANDEA 25

LASARTE-ORIA Musika

Zero Sette Jai Band-ek kontzertua emango du: pop rock estiloko hainbat abesti joko ditu. Sarrera doakoa izango da. Okendo plaza, 13:00etan.

Euskarazko festa herrikoien alde lanean

Ate joka ditugu sanpedroak, eta Ttakun Kultur Elkartearen etenik gabe ari da, urtero gisa aurten ere jarduera egitarau erakargarria prestatzeko. Askotariko jarduera eta ekimenak iragarri ditu, horien artean, tradizio bilakatu den hilaren 28ko herri afaria

Txintxarri

Aste gutxi batzuk baino ez dira falta herriko kaleak kolorez eta umore onez betetzeko. Badatoz San Pedro Jaiak, eta Ttakun Kultur Elkarteak burubelarra dabil Lasarte-Oriako haur eta helduentzako programazio atsegin bezain erakargarria prestatzen. Ohi bezala, aurten ere herritarrek festa herrikoia euskaraz izan ditzaten izango da xedea.

Festen egitarauko ekimen ezagun bezain goxoa izaten da Patxintxi Sariena. Lasarte-Oriako 65 urtetik gorako pertsona maitagarri eta goxoenak saritzen ditu

egitasmoak. Horiek nortzuk izan erabakitzeke, proposamenak bidaltzeko epealdi bat ireki du kultur elkarteak, eta berriki itxi da. Orain, berri, proposatutako guztien artean bi aukeratzeko tartea izango da; emakumezko eta gizonezko bana. Hilaren 17tik 25era eman itzakete interesdunek euren bozkak, ondoko estekan: labur.eus/patxintxisariak2023.

Makarronda eta afari herrikoia Elkarteak jakinarazi du aurten ez dela zikiro afaririk izango, baina hilaren 28an afari herrikoia antolatzen jarraituko du. Aurtengo menua entsalada,

oilaskoa, ogia, edaria, postrea eta kafea izango da. Txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko, eta agortu bitartean izango da horiek erosteko aukera, Ttakunen bulegoan, 25 eurotan.

Bestalde, 2011-2014 urteen artean jaiotako gazteentzat hilaren 28an kalejira iragarri du elkarteak, erdigunetik Basaundira. Hori amaituta, 14:00etan makarronda bazkariak gozatuko dute. Bazkalostean, aldiz, ur-jolasak eta bustiblai egingo dute. Plaza mugatuak direla ohartarazi dute antolatzaileek, hortaz, bertan parte hartu nahi



Lasarteoriatarrek Sorgin Dantza prestatzeko entseguak ari dira asteotan. TXINTXARRI

dutenek txartelak eros ditzakete Ttakunen bulegoan 3 eurotan.

Sorgin Dantza

Sorgin Dantza prestatzeko saioek ere aurrera jarraitzen dute. Hiru egin dituzte dagoeneko, eta azken biak baino ez dira geratzen. Hilaren 20 eta 22an izango dira horiek, astearte eta ostegunarekin, Okendo plazan eta 20:00etatik 21:00etarako ordutegian.

Azkenik, aurrez aipatutako jarduera guztiak (artikulu honetan izendatuek gain badira gehiago ere) aurrera eraman ahal izateko herritarren laguntza behar du Ttakunek. Batez ere herri afarirako. Hortaz, lan horietan parte hartu nahi dutenek kultura@ttakun.eus helbidera idatzi dezaketre, edo 943-37 14 48 telefono zenbakira dietu.

8. URTEURRENA

LASARTE-ORIATARREN
IKUSMEN OSASUNA ZAINTZEN

Deskontu handiekin ospatuko
dugu, aprobeitza itzazu!

Kale Nagusia 15

943 377 456

LASARTE - ORIA

MULTIÓPTICAS

EPA LASARTE HHI

2023-2024 ikasturtea

Deitu
hitzordua
eskatzeko!

Matrikula Zabalik ekainaren 19tik 29ra eta irailaren 1etik 15era

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Hiritartasun digitalerako Informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBH-ko titulua ziklo ertaina eta gorena egiteko, 4 hilabeteko ikastaroak)**
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **OINARRIZKO EUSKARA.**

Tel. 943-37 64 43 / 943-36 66 08 • Beko kalea bidea 1º 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus